

bid egileak



**Julen Lekuona (1938-2003)**

Egilea:


**JOXEMARI IRIONDO**

# Habitik kantari

Lekuona-Berasategi senar-emazteen beste haurrak gerra aurrekoak ziren, baina etxeko uzkurumea, senide zahar-rragoen jostailurik atsegina izan zen Juliantxo mutiko eder hura, gerra ondoan etorri zen mundura, 1938ko uz-tailaren 18an, oiartuarrek Goiko Kale izenez ezagutzen duten San Juan kalean, hain zuzen.

Bruno Lekuona eta Tiburtzia Berasategi, ezkondu zirenean (1923.01.04), gaur egunean herriko plazako Botika dagoen toki berean zegoen Batzokiaren gobernua beregain hartu zuten, bertan-txe bizitzen jarritz. Eta hantxe jaio zen haien alaba Primitiva (1924.10.13). Alabaina, Primo de Riveraren altxamen-

duaren ostean, herritar asko eta abertzaleen biltoki zen aterpea uztera behartu zituzten, herrian seinalatu samarrak omen zirelako-edo. Eta ahal zuten moduan, beste etxebizitza batera jo zuten, herriko plazan bertan. Bigarren bizitoki hartantxe jaio ziren ondorengo hiru



Julen Lekuona Berasategi (1938-2003)

senideak: Jose Luis (1925.06.22), Juan Mari (1927.11.11) eta Andoni (1932.05.15). Baina, han ere maizterrak izaki, etxebizitzaz berriro aldatu beharra izan zuten, eta Goiko Kalen jarri ziren, gerraostean. Eta sei urteko tartearekin, hantxe jaio zen bosgarren senidea. Juliantxo —horrela deitzen zioten orduan etxean eta herrian—, mutiko polit-polita zen, alai eta gozoa, kasketa gutxi harrapatzen zuen horietako umea, bere arrebak gogoratzen duenez. Senide zaharragoentzat erregalia berezia izan omen zen, azkenengoak askotan izan ohi direnez.

## Don Inazioarekin eskola

Sei edo zazpi urte zituela hasi zen Juliantxo herriko mutikoen eskolan, handi eta txiki guztiak batera biltzen zirelarik. Don Inazio izan zen bere lehenengo eskola-maisua: «erdalduna eta zorrotz samarra». Zerbaiten beharra izango zuen adin ezberdineko mutiko handi eta txiki guztiak batera biltzen ziren eskola hartan. Hori bai, etxean eta kalean haurren artean euskaraz hitz egiten ohiturik bazeuden ere, gazteleraz hitz egitera behartzen zizuten eskolan.



Lekuona Berasategi familia: gurasoak eta seme-alabak



Mendibururen estatuaren aurrean, erdian Julen

Gerra ondorengo urteak urte zailak eta pe-  
tralak izan ziren gogotik Oiartzungo familia  
euskaltzale hartan ere. Horrelako kontu  
mingarri eta beltzak gero jakin zituen Julia-  
nek; baina bizi izan balitu bezalaxe sentitu zi-  
tuen osaba Julian (Julian Lekuona Etxabe-  
guren) Oiartzungo udaletxera eraman eta  
beste errenteriar batzuekin batera kamioie-  
tan sartu eta Endarlatsa aldera eraman eta  
hil omen zuten kontakizun beltza. Baita Erren-  
terian apaiz zegoen osaba Martin, 1936ko  
urriaren 26an, atxilotu eta Falangearen egoi-  
tza bihurtuta zeukaten Batzokira eraman eta,  
1936ko azaroaren 4an, Donostiako Ondarre-  
tako espetxean sartu zutenekoa ere. Lau egu-  
nen buruan, libre zela esan ondoren, auto  
batean sartu eta Galarretako (Hernani) harro-  
bira eraman eta hantxe fusilatu zutenekoa,  
eta abar. Etxean ezagutu zuen gozotasunak  
adinaxe minberatu zuten Juliantxo mutikoa  
gertakari ikaragarri haiek. Baina inorentza-  
ko gorrotorik gabe bizitzen erakutsi zioten  
etxean, eta horrelaxe jarraitu zuen bizitzan  
zehar gero ere, bere bihotz-handitasuna de-  
nei erakutsiz.

Julen Seminarioko antzerki taldean

## Arotz eta elektrikari

Herrian eta Pasaian arotz-lanean ibili zen  
Bruno Lekuona familiako burua. Eta aldi ba-  
tean, arotzeria baino lanbide seguruxeagoa  
izango zela, eta Oiartzungo *Mitxelena indarre-*  
*txean* ere ibili zen, ur-saltoa zaindu eta herri-  
rako argindarra sortuz. Aldi berean, elektri-  
kari-lanak egiten zituen. Eta estuasun gaizto  
bat baino gehiagotatik salbatu zuen lanbide  
horrek, zorionez. Izan ere, hartu eta espe-  
txean sartu nahi izan zuten batean, herrian  
elektrizista bakarra zegoela ohartu eta inor  
gabe gelditzea arriskutsua izango zelako libre  
uztea erabaki omen zuten.

Hala ere, gero, sasoiko zegoela, 1954ko aben-  
duaren 6an hil zen, berrogeita hamasei urtere-  
kin, eta familia oso baten zama astuna alargun  
gaixoari utzita. Momentu larria izan zen, bai-  
na une zailtan ere bizitzari aurpegia ematen  
ohitutako familia zen hura, ezbairik gabe.



## Seminariora aurreko biak bezala

Juliantxo mutikoak, garai hartako beste gazte askoren antzera, familia eta herriko lagunak, eskola eta jostaketak utzi, eta Donostiako Seminariora joatea erabaki zuen, 1952ko ikastaroa hasteko. Hamalau urte izango zituen doi-doi; baina, familia eta herriko lagunak uztea ez bide zitzaion asko kostatu, oporretan-eta herrira itzultzean sarritan ikusiko zituela pentsatuz, bere anaia Juan Mari zena eta Andonik horixe egiten zutelako ikusi zuen-eta.

Ireki berria zen Donostiako Seminarioko euskal giroa ez zen berak herrian ezagutzen zuenaren antzekoa, lagunaren artean izan ezik behintzat. Baziren irakasle euskaltzaleak, baina beste zenbait ez zegoen euskara edo euskaltasunari gauzak errazteko.

Zena zela, amets eta kezka betetako bihotz gazte hartan bilduta zeramatzan zaletasunak lantzeko aukera eta adorea izan zituen, batez ere lehenengo urterik zailenak pasa ondoren. Oiartzungo *Lartaun* talde ezagunaren txistua jotzen ohituta zegoenez, Seminarioko txistulari taldea antolatu eta indartzen ahalegindu zen, beste batzuekin elkarlanean. Eta, gero, euskaraz antzerkia egiten ere bai, eta euskaraz kantatu nahi zutenak bildu eta abesten erakusten.

Julen Seminarioko futbol taldean

## Idazle eta antzerkizale

Ikasteko eta tartean bere zaletasunak eragindako lanetan buru-belarri sartzeko astia izan zuen, bestalde. Eta seguru asko bere alderdirik ezezagunena dena lantzen ere saiatu zen, hemezortzi-hogei urte zituen garaian. Besteak beste, han eta hemen aldizkarietan-eta idazten hasi zen. Aldian behin, Oiartzungo herri-aldizkari batean idazten zuen. Eta geroxeago, *Zeruko Argia* astekarian, eta *El Diario Vasco* egunkarian ere bai. Baina beti euskaraz idazten zuen hark, hori zen-eta bere baliabidea hitz egiteko, kantatzeko eta idazteko.

Hori bai, idazlan ausart samarrak, itxuraz gozoak baina edukiz protesta girokoak egiten saiatu zen, batez ere Francoren diktadurak iraun zuen arte behintzat, Euskal Herriaren egoerak halaxe eskatzen ziolako. Beste hiz-



kuntzetan irakurri eta interesgarri samarrak iruditzen zitzaizkion artikulu eta liburu- itzulpenak ere egin zituen inoiz; eta, batez ere, bere kantutegi maitea osatuko zutenentzat poesiak egiten ahalegindu zen, bereziki.

Julenek ez zuen ezagutu zuzenean, baina antzerki-giro bikaina zen Oiartzunen gerra aurrean, eta emanaldiak astero-astero egin ohi ziren herrian, batez ere udazken eta negu-garaian. Etxean entzun zituen Julenek horrelako istorioak, eta bizi izan balitu bezalaxe maite zituen, noski.

Mutikotu zenean, berriz, gerra ondorengo debekualdiak ondo ezagutu behar izan zituen. Baina hala ere, lehenengo antzerki-saioak herrian egin zituen, haren aurrekoek bezalaxe. Gero, herrian nahiz Seminarioan ahalegin bereziak egiten zituen apaizgai zela, haren ikaslagun izan zirenek ondo gogoratzen dutenez. Antzerkizale handia zen, baina beste antzezleei lagundu eta taldea zuzentzea gehiago gustatzen zitzaion zuzenean antzezle izatea baino. Ezkutuko lana maite zuen bereziki, urteak joanda gero entzuleei aurpegia eman eta artista izatea egokitu bazitzaion ere. Gogoan dugu oraindik azkenengo aldiz antzerkia egiten ikusi genueneko. 1981ean Joxe M. Iparragirrereren pertsonaia antzeztu zuen, Oiartzungo *Intxixu* taldeak halaxe eskatuta, haren heriotzaren mendeurrenean. Bete-betean zetorkion gainera urretxuarraren papera, bere gitarra eta guzti.



Julen Seminarioko txistulari taldearekin

Bestalde, herriko taldeari antzezlan berriak eskuratu nahita, atzerriko zenbait obra ezagun euskarara itzuli zuen Julenek, Euskal Herriko antzerkigintza tradizionalari berritu bat eman beharrez. Besteak beste, *Kristalezko Zooa* (*Zoo de cristal-Tennessee Williams*) eta *Ertzaina etxean* (*Un inspector en casa-Priestley*) obra ezagunak euskaratu zituen, 1961-1962an, gutxi gorabehera, Donostiako *Jarrai* talde ezaguneko Iñaki Beobidek halaxe eskatuta. Ospe berezia eman bide zioten lan horiek biek, orduko euskal antzerki-talderik famatuenetakoa beraxe zen-eta, ezbairik gabe.

Haren zenbait kanta ezagun ere Seminarioko garaian eginak dira, hango bitziza bake-tsua ematen zion bakartasun eta patxadaz baliatu, eta gero jendearen aurrean kantari hasteko beharko zuen heldutasuna lortuz.



Oiartzungo Lartaun txistulari taldean



Aizpurtxo, Julenen lehen destinoa

## Aizpurutxora apaiz

Apaiz egin eta 1964ko abuztuaren 9an eman zuten meza berria Julenek, Oiartzungo San Esteban parrokia ederrean, bere anaia Juan Mari eta Andoni, osaba Manuel eta Teodoro Iñarra laguntzaile eta babesle zituela. Hamabi urte inguruko bide luzea egin ondoren, bere bizitzan ordura arte izan zuten egunik handietakoa huraxe izan bide zen harentzat.

Baina oso oporraldi laburra izan zuen herriko ospakizun handi haren ostean. Izan ere, berehalaxe bidali zuten Zumarraga-Azkoitia bidean erdiz erdi dagoen Aizpurutxoko auzo bakarti hartara.

Nolanahi dela ere, haren Aizpurutxora joatea garrantzi handiko notizia izan zen. Bestek beste, berehalaxe zabaldu zen gure artean kantagilea eta kantari bikaina zela. Eta, besterik gabe, hiru edo lau kantu irratan graba zitzan gonbidatu genuen ilunabar batean, hara eta hona horrelakoen bila genbiltzan-eta. Hark ezetz esaten jakin ez, eta eskabidea bere


hartan onartu zuen. Hura gure poza! Adiskide eta lagun bat gehiago bagenuen irratigintza zereginetan. Eta guk adinakoxe poza hartu zuten gure irrati-entzuleek, zorionez.

Urolako trenetik jaitsi eta hango mutiko batzuei nongoak ziren galdezka hasi omen zela kontatu ohi zuen. Eta, Aizpurutxokoak zirela eta berek lagundu ziotela hango apaiz-etxeraino, bere bizileku berria ezagutu zezan. Eta, halaxe, eraman zituen arropak, liburuak, handik urtebetera Azkoitiko epaileak bahitu zion bere gitarra maite hura, eta gainerakoak bakoitza bere apaletan nolabait jarri, eta eliza eta hurbileneko bizilagunak bisitatzen hasi zen, beste gainerakoak igande goizeko mezetan agurtuko zituela pentsatuta. 1970eko abendura arte hantxe saiatu zen, elizkizunak gitarraz eta kantuz berritu eta herritarrei ahal zuen guztia emanaz, beti lanerako prest. Sei urte handi eta eder egin zituen Aizpurutxoko erretore, askotan pozik eta inoiz kezkatu. Ez dute berehala ahaztuko hango auzotarrek apaiz gazte eta onbera hark herrira ekarri zien giro atsegin eta hurbila.



## Egur oneko ezpala

z legoke esan beharrik, baina egur oneko ezpala zen Julen, hau esatea kortesiazko formula hutsa irudituko bazaio ere norbaiti. Hitz-jario egoki eta atseginekoa zen, kantari garratz eta gozoa aldi berean, poeta eta idazle txukuna, euskara eta euskal kulturaz arrunt kezkatutako gizona. Bertsozalea zen, baina, batez ere, kantatzea maite zuen, 1960ko hamarraldi go-goangarri hartan hasi eta bizi zen arte ondo erakutsi zuenez. Oiartzungo kanta herrikoi eta bertsolari zaharren pasadizo eta alerik ederrenak umetan ikasi zituen, herrian eta, batez ere, etxean. Bertso zahar eta kantu-tradi-



Julen kantaldi batean, 1966an

zioa haurtzaroan jaso zuela aitortzen zuen, harro asko. Familiatik zetorkiola bereziki edertasun hura guztia. Izan ere, haien etxean, guraso eta senide, denek batean koru eder bat egiten zuten. Haien etxeko sukaldea, sutondo gozoa izaten zen ilunabarretan-eta, kontu-kontari edo denak batean kantari hasten zirelarik.

Bertso zaharren grina eta gozoa hezurretaraino sartua zuten, *Beriberriko* amona Kontxexiri esker. Hark ez omen zuen huts egi-

ten igandetako meza nagusirik, ez eta meza ondoren plazako arkupean kantari aritzen zen bertso-paper-saltzailearengana hurbildu eta ahal zituen paper guztiak erosteko aukerarik, gero etxera joan, irakurri eta bertsoari zegokion doinua aukeratu eta familian kantatzeko. Denak ahoa bete hortz hantxe edukitzen zituen, arretaz entzuten. Bai bazekien hazia ereiteko lur ezin hobea zela haurtzaroko giro eder hura. Eta horrela jasotako ondarea oso gogoan zuen Julenek beti. *Amona-*

*ren sukaldea* gai hartuta egin zuen abestia lekuko, besteak beste: «Afaldu aurretik kantua/ bihotzetik sortua./ Bertsozagar paperen lekuak/ hartzen du astindua./ Gero errosario santua/ zintzo erreztatua...» (*Itsasoan urak handi-Julen Lekuona, 1998*).

*Etxetxiki* kale-baserrikoa zen aita Bruno, eta oso kantari egokia gainera. Oiartzungo *Schola Cantorum* koroan kantatzen zuen igandero. Baina bere etxeko koroa garrantzitsua-



Julen toki eta argazki ezberdinetan

goa zen harentzat, ezbairik gabe. Urteko edozein garaitan kantatzen zuten haienean; baina, batez ere, Eguberrietarako prestaketa bereziak egiten saiatzen ziren. Hilabete t'ardi edo bi hilabete lehenago hasten ziren entsaioak egiten ilunabarrero, eta dozena erdi bat kanta edo gehiago prestatzen zituzten, egunak etortzen zirenean ederki asko suntuondoko gozoan kantatzeko. Lehenengo Eguberri-kantua, *Artzai buruzuri bi* kantatzen zuten, eta gero besteak. Eta inola ere huts egin ezin zitekeen erritual bat bezalatsu zen hori Lekuona-Berasategitarren sendian.

## Ikasle eta irakasle

Bederatzi-hamar urte bete zituen orduko herriko *Schola Cantorum* taldeko tripletan kanta zezan hots egin zioten Juliantxo mutikoari. Eta astean bi-hiru aldiz entsaiatzen zuten, gero igandeetako meza nagusian-eta abesteko. Hamalau urterekin Seminariora joan zenean, han ere solfeoa ikasten jarraitu zuen, lehenengo urteetan. Gero, berriz, musika gregorianoaren sailean sartu zen, apaiz-ikasketak egiten ari zen bitartean. Eta Salamanca eta Montserraten ikastaro bereziak



*Ez dok amairu* taldea, Lertxundi familiarekin

egiteko aukera eman zioten, Makazaga klaretiar ezagunaren gidaritzapean. Baina, aldi berean, seminarioko bere ikaskideei erakusten ahalegintzen zen, gregorianoa biziki gustatzen zitzaion-eta. Armonia ikastaroak Hernaniko Iruretagoiena maisuarekin egin zituen.

Seminarioko korua eta txistularien bandaren zuzendari izan zen aldi batean, nahiz eta hango bere agintari guztiak ez ziren beti gustura izaten, «porque usted pone más cantos en vasco que en castellano» zela eta. Oporraldia etorri eta etxera joaten zenean, berriz, Oiartzungo *Lartaun* txistulari bandan silbotea jotzen zuen.

## Apaiz kantaria

Hogeita bat edo bi urte zituela, eta bere apaiz-ikasketak burutzear, 60ko hamarraldia-  
ren hasiera hartan izen eta sona handiaren jabe ziren aita Duval, Soeur Sourire moja edo antzeko kantautore erlijiosoen diskoak entzun zituen bezain agudo, haiexen bideetatik abiatu behar zuela erabaki zuen Julenek, oiartzuarraren kantagintza haiena baino askoz ere gordinagoa eta ausartagoa bazen ere. Haien kantuak, abesti goxo eta atseginak ziren. Julenenak, aldiz, protesta eta salaketa-kantuak ziren, garai hartako Euskal Herriko giroa eta egoera halakoxea zelako. Eta nork jakin zenbat abesti egin zituen, edo hasi eta amaitu gabe zirriborratuta utziko zituen

Julen lagunartean kantari, 1967an



Seminarioko gela hartako bakardadean, harrik eta Galarretan fusilatu zuten osaba Martini eskaini zion *Zeruetako gure osaba* lehenengo kantu hura formalki aurkeztu zuen arte, 1963an:

Zeruetako gure osaba,  
zuretzat gaur nere otoitza.  
Argi nahi dut zure oroitza;  
arren, zuk ez hortik begirik ken.

Handik aurrera, bere kantu-bilduma hazi eta lantzen saiatu zen beti, bere errepertorioa osatu eta batetik bestera kantari hasi zen arte.

Hasi, bakarka hasi zen lehenik; eta jendearen aurrean emandako lehenengo kantaldia Donostiako Antiguako parrokiako saloia inauguratu zenean izan zen, 1963ko urtearen ondarreran-edo, egun jakina gogoan ez bazuen ere, aitortu zigunez. Eta gero, Lourdes Iriondorekin, Mikel Laboarekin eta abar ibili zen herriz herri, 1964 eta 1965 urteetan zehar. Baina zerbait gehiago ere egin zuen, noski. Aldi hartan herrietako dantzazaleen artean modan zeuden atzerriko kantuen itzulpenak egiten zituen. Besteak beste, Arrasate orkestrarekin euskaraz kantatzen zuen Joxe Antonio Villar oñatiarrari itzulpen bat baino gehiago egin zion, laguntasun eske joaten zitzaien-eta, euskaraz kanta zezala eskatzen baitzioten gazteek. Eta gero, 1966ko urtarrilean, *Ez dok amairu* taldearekin kantari hasi zen, herriz herri.

Abeslaria bai, baina, batez ere, kantugilea zen Julen. Eta egiten zituen abestien musikari eta haien letrari garrantzia berdintsua ematen ahalegintzen zen, oro har. Horretaz jabetzeko, ez dago ilusio handiz egin eta laurogeita hiru kanturekin osatu zuen bere kantutegia aztertu besterik.

Nolanahi delarik ere, haren abestirik ezagunenak honakook izan ziren: *Iltzaille bat bezela; Itsasoan urak handi dire; Ez, ez dut nai; Aizak, hi; Agur, illargira noa; Egin karraxi, Martin Luther King, Errege Baltaxarren balada* eta *Aleluia*. Baina, batez ere, apaiza eta bere elizaren zerbitzari leiala zenez, bere ingurumarian ikusi edo nabaritzen zituen okerrak eta injustiziak gogor salatzen saiatu zen, 1966ko



Julen Pasaian kantari, 1970ean

urtarrilaren 23an Donostiako Victoria Eugenia aretoko kantaldian lehenengo aldiz abestu zuen *Eliza pobrea* zeritzon hartan bezala:

Eliza pobrea,  
eliza pobrea,  
denontzat hobea.

Inor gutxik jakin bazuen ere, garai hartan Gipuzkoako elizbarrutiko gotzain eta *Aizpurutxoko erretore* gaztearen agintari lehena zen Lorentzo Bereziartua jaun bidaniarra zeharo haserretu omen zitzaion jaialdi hartako entzuleen artean sortu zuen histeria ikaragarriaren berri norbaitek eman zionean. Eta kontuz ibili zedila agindu zion, baldin-eta apaiz izaten jarraitu nahi bazuen behintzat. Hala ere, apaiz eta kantari izaten jarraitu zuen hark Euskal Herri osoan zehar, Aizpurutxoko eliztarren artekoak zintzo eta leial asko eginez.

Ez dakigu haren abesti guztietan onena den, baina Lekuonak egin zituen laurogeita hiru abesti horietan ezagunena, bere *Iltzaile bat bezela* deitu hauxe izango dela uste dugu, zailantzarik gabe:

#### **Iltzaile bat bezela**

Iltzaile bat bezela hemen naramate  
bi eskuak loturik mundutik aparte.  
Errurik ez dudala azaldu nahi nuke.  
Egia nahi dunantzat emana dut merke.



Julen jaialdi batean

Kanta hau egin, trenean zihoan batean egin omen zuen, 1964 urtean, egun haietan Euskal Herriko apaiz talde bat epaitzen ari ziren-eta Madrilen; eta gai horixe eskaini nahi izan zion bere aitortpena. Urte asko joan da ordutik hona, baina oiartzuarraren bertsoak eta musika erraz gogoratuko ditu oraindik ere euskal kantuzaleak. Eta horixe izan kantagile batentzat aitortpen eta ohorerik handiena.

## Sotila eta langilea

Inork besterik pentsa badezake ere, ez zen batere bihurria, sotila eta langile zintzoa baik; eta bere lanaren ordainez inoiz ezer eskatzen ez zuen horietakoa. Hari mesederen bat eskatzen bazenion, nekez erantzungo zizun ezetz. Frankismoaren garai beltzean, euskara eta euskal kulturarentzat hain garai txarrean, zintzo eta bihotz-zabal jokatu nahi izan zuen, berak zezakeen ezer inori ukatzeko. Eta horrelaxe jarraitu zuen diktadore zaharra hilda gero ere.

Julen Lekuonaren xalotasun horren berri emateko pasadizo bat kontatzen du *Zeruko Argia* astekarian ikaskide izan zuen Joan Antonio Letamendiak: «Gaur bildu gera orde, zorionez, eta don Nemesio (Etxaniz) zutitu da eta kantu atsegin batzuk eskaini dizkigu, Abetxe eta Bordari lagun dituela. Eta, halako batean, Julian kanpora joan da, eta laster agertu

da gitarra besapean duela. Metraileta bat dakarrela ematen du gizonaren askatasuna defenditzeko prest, eta honela kantatu digu:

### Ilargira noa

Ez, ez dut nahi.  
Ez, ez, ez,  
ez holako zibilizaziorik!  
Libre nahi dut bihotzez,  
libre loturatik,  
basurdearen gisan  
hortzak hestuturik...»

Honela zehaztu zion ondoren Julenek bere jokabidearen arrazoia Letamendia lagunari: «...apaiz bezela esan nahi diat, mundu hobe baten alde diharduen guztia gizon bezela aurrera bultza beharrekoa dela. Ta, gehiago oraindik, gizon bezela bakarrik ez, kristau bezela ere bai, benetako bakea burrukarik gabe sekula lortzen ez delako. Kristauak ere burruka egin behar dik, beste guztiak bezela eta besteak baino gehiago, Kristok egin zuen bezela».



Julenen lehen diskoa, 1966an



Julen Herbehereetan kantari, 1967ko irailean

## Ez dok amairu

Bakarka eta lagun arteko jaialdietan kantari zebilelarik, *Ez dok amairu* izena hartu zuen taldea sortzear zegoela, berak ere taldean esku hartu nahi zuen galdetu genion, eta hark baietz erantzun itsu-itsuan, 1965eko azaroan Donostian egindako bilera hartan. Eta handik laster, 1966ko urtarrilaren 9an Hernanin eta 23an Donostiako Victoria Eugeniean egindako jaialdietan abestu zuen. Eta han berebiziko arrakasta izan ostean, *Ez dok amairu* talde berria, 1966ko martxoaren 6an, ofizialki Irungo Bellas Artes aretoan aurkeztu zenean, Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Donostiako *Burriak*, Joxe Antonio Villar eta Zarauzko *Oleskariak* zortzikoarekin batera egindako jaialdi batean abesteko aukera izan zuen berriro.

Ilusioz eta gogobetez hartu zuen talde berriaren etorrera, bakarrik ibiltzea baino ero-

soagoa ere bazen-eta beretzat, eta guztietara iristen zen zuzen asko. Ehunka kantaldi eman zuen garai hartan, gehienetan taldean eta inoiz bakarka. Euskal Herriko antzoki, plaza edo pilotaleku askotara iritsi zen, orduko agintariak debekatzen ez zutenean behintzat —60ko hamarraldian ohikoa baitzen hori ere—.

Ez zen erraza izaten auzo txiki hartatik batera eta bestera mugitzea. Bere anaia Andonik utzitako motorrean joan ohi zen Zumarraga edo Azkoitiraino, eta han tren edo autobusa hartu. Edota bere lagun batekin autoan joanez hamaikatxo bazter bisitatu zuen. Hala ere, zera izaten zen okerrera: orduko jaialdi asko, edo gehienak, herriko ikastolaren alde, espetxeratuen alde, edo beti zerbaiten alde izan ohi zirela, eta gehienetan musu truk ibili behar izaten zuela artistak, esker handirik gabe.



Julenen bigarren diskoa, 1968an



Julen alaba Oihanarekin



## Bertso zaharrak eta diskoak

Ez dok amairu taldea 1972an desegin zenean, beste edonork adinaxe, edo gehiago sentitu eta sufritu zuen Julenek, ezbairik gabe. Baina taldea desegitean negar antzuak ez zuela asko balio eta aurrera egin zuen, inoiz bakar-kantatuz, edota aldian behin bere lagun zaharrekin batera plazetan azalduz. Besteak beste, umetan etxeko sukaldeko mahai gainean kantatu ohi zituen bertso zaharrekin gogoratuta-edo, Xabier Lete eta Antton Valverderekin bildu eta bertso eta koplak zaharrak eta berriekin saio bereziak egin zituzten, herriz herri. Eta 1974ko martxoan Donostiako Teatro Principal-Antzoki Zaharrean eman zuten lehenengo jaialdia, gogoan dugunez.



Julen, 1981ean

Gutziz sanoa, malezia pittinik gabeko gizona zen Julen, zuen guztia emateko beti gertu zegoena. Baina halakoen ingurumarian ibili ohi den putre asko da gurean ere, zoritxarrez. Eta gogoan dugu oraindik ere Venezuelan argitara eman omen zituzten bi disko txiki zirela-eta izan zuen nahigabea. Berak ez zekielako grabatu eta argitaratu zituzten, noski, hil baino hilabete batzuk lehenago egindako elkarrizketa batean aitortu zigunez. Gainera ezin izan zituen inoiz eskuratu, nahiz-eta bere zortzi abesti jaso eta lotsagabeki erabili zituzten: *Iltzaille bat bezela*, *Eliza pobrea*, *Erri bat iltzen*, *Egin karraxi*, *Askatasuna*, *Euskal-emigranteen abestia*, *Din-dan*, eta *Osaba Martin*, hain zuzen.



Lekuona anaiak ETBn, 2002an



Lekuona anaiak Imanolekin, Oiartzun 1998.07.11n

Nolanahi dela ere, handik urte batzuetara berriro grabatu eta argitara eman zituen abesti horiek Euskal Herrian, bere osaba Martini eskainitako *Zeruetako gure osaba* zeritzona izan ezik, zentsura petralak ez zion onartu-eta. Legez egindako Julen Lekuonaren lehenengo disko txikia, 1966an argitara eman zuen, Bilboko (Deustu) Cinsa diskoe-txean grabatuta. Ez zuen ordea osasun baldintza tekniko egokian egin grabaketa hura. Sekulako marrantarekin, eztarria garbitu ezinik eta kaskarreko minez eraman genuen Deusturaino. Hala ere, grabaketa nahi eta ez egin behar zela eta bere egitekoak beteta itzuli zen Aizpurutxora.

*Ez dut nai; Illargira noa, Euskal-emigra-  
teentz abestia, Aizak, i eta Iltzaile bat bezela* jaso zi-

tuen bere lehenengo disko hartan. Baina Deustun egindako diskoaren historia tristea izan zen gogotik. Hala saiatu eta grabatu ostean, dendetan salgai jarri zituzten ale guztiak bahitu zituen poliziak, *Iltzaile bat bezela* kanta famatuan «tiroak gogoan» esaten omen zuelako.

Horrekin nahikoa ez, eta handik hilabete gutxira, Azkoitiko epaile jaunaren aurrean deklaratu behar izan zuen Aizpurutxoko apaizak, epaileak berak inoiz irakurri ez zuen kantaren letra zela-eta, inolako defentsarik eta babesik gabe. Eta gero, hobenaren ordainez han ezarri zioten isuna ez zuela berak ordainduko, eta bere joan-etorrietarako erabiltzen zuen moto xaharra bahitu nahi izan zioten. Zorionez, hura ere besterena izan ordea,

eta apaiz-etxeko bere gela apalean baztertu-  
ta, hormatik zintzilik zeukan gitarra xaharra  
eraman guardia zibilak, azkenean. Hori bai,  
diktadore xaharra hil eta handik gutxira pa-  
pertxo bat bidali zioten, epaitegian bahituta  
zegoen gitarra zaharkitua nahi zuenean jaso  
zezakeela abisu emanetz, bere hobena barka-  
turik zegoela-eta. Ez zuen jaso nahi izan or-  
dea, ez baitzion ezertarako balio.



Julen eta Kontxita ezkontza egunean, 1974an

## Nahigabea ala etsipena?

Lehenengoaren esperientzia txarraz ahaztu,  
eta bigarren disko txikia Bartzelonan graba-  
tu zuen, 1968an, *Herri Gogoa-Edigsa (HG-3)*  
disko-etxean. Eta Deustun egindako lehe-  
nengo haren gabeziak pittin bat baztertu eta  
bere disko berria hobeki jantzi nahirik, gra-  
baketa hartarako armonizazioak Joxe Mari  
Altuna musiko azpeitiarrak egin zizkion, eta  
hiru kanta ezagun jaso zituen, Salvador Gra-  
tacós grabazioaren zuzendari zela: *Errege Bal-  
taxarren balada, Aleluia eta Txokeko aututan.*

Hala ere, bigarren diskoaren aurkezpenean  
irakur daitekeenez, guztiz kezkatu, nahigabe-  
tuta edo etsita bezala zebilen J. Lekuona bere  
kantu-bidean, kantatzeko nahi eta behar  
zuen askatasunik ez zuelako, edo nahi zuen  
guztia egitera iritsi ezin zelako, agian. Biga-  
rren disko txikiaren atzealdean idatzi zuen  
olerkiak zerbait esan nahi duela pentsatu  
izan dugu beti:



Ixiltzeko gogo.  
Izar igeskor batean,  
zutik, eldulekurik ez.  
Mundua beian,  
maitasuna erdian...  
Onen azpian:  
Abestia.  
Abeslariak, tamalez,  
antziñako ametsik  
ezin esan.  
Geroko bizitzarik  
ezin abestu.  
Orain,  
erriz-erri, abeslari: min.  
Gero,  
munduz-mundu, abeslari: il.

Etsita, asperturik, Euskal Herriaren garai hartako tunel beltzetik irten ezina? Auskalo zer burutapen zerabilzkien! Izan ere, 60ko hamarraldiaren azkenetan mila eratako erasoak izan zituen gure kantariak, beste guztiek bezalaxe. Baina gobernadorearen debeku eta albistari maltzurren zirikaldi guztien gaintik bere bideari jarraitu zion apaiz kantagile zintzoak, behin batean bide horixe aukeratu zuen-eta.


*Ez dok amairu taldea Usurbilen, 2003.04.22an*



## Norabide berriak urratzen

*E*z dok amairu taldeak egin zuen lanik ederrenetakoa, zalantzarik gabe, *Baga Biga Higa* ikuskari/sentikaria izan zen, ezbairik gabe. Lehenengo aurkezpena Portugaleten egin zuen, 1970eko abenduaren 22an. Eta ikusgarrizko arrakasta izan zuen, nahiz eta euskaldun gutxi zen herri batean egin zen jaialdi hura.

Alabaina, Julenek ez zuen izan eginkizun hartan parte hartzerik. Batetik, lan asko zen harentzat, bere betebeharrak ondo egin eta batetik bestera etengabe ibiltzeko. Bestetik, berriz, bide berriak urratzen hasi beharra zeukan, behin batez aukeratu zuen apaiz iza-



Julen seme Aritzekin, 1976an

teari garaitu hartan utzi zion-eta. Bere bizimodu berriaren norabideak zuzen aukeratu beharra zeukan, eta ez zen erraza hori. Bakarka eta inoiz lagunekin ere abesten jarraitu zuen, baina aldi berean lanbide berri baterako bideak urratzen saiatu behar zuen. Batera begiratu eta bestearekin hitz egin, gero, halabeharrez, bere koinatu izango zenak utzitako lurretan berotegi bat prestatu eta lehenengo esperientziak egin zituen, baserria eta lurgintzarekin ere kezkatuta

baitzegoen. Baina poza baino nahigabe gehiago eman zion lehenengo lanbide hark, zorritzarrez. Eta bere bizitzako itsaso zailean, norabidea aldatu zuen goitik beheraino, Euskadiko Kutzaren Azpeitiko bulegoan lanean hasiz.

Bere bizimodua goitik behera aldatu, eta apaiz-bizitza uztea erabaki zuen 70ko hamarraldiaren hasieran, bere buruari mila buelta eman ondoren Aizpurutxoko bakardadean. Halaxe, 1972an, bere elizbarrutiko adiskide eta bizilagunak agurtu zituen, eta lanean hasi zen buru-bihotz.

Julen 1974ko udan sekularizatu zen, eta urte bereko urriaren 5ean ezkondu, Guadalupeko elizan, Kontxita Rekalde oiartzuarrarekin. Halabeharrez, bere ikasketak zabaldu eta eguneratzeko asmoz Afrikatik etorria zen Kontxita garai hartan, eta Irunen elkar eza-gutu zuten.

Ezkondu eta Azpeitian jarri ziren bizitzen lehenengo, Julen Euskadiko Kutzaren Azpeitiko bulegoan ari zen-eta lanean. Kontxita, berriz, Lasaoko (Azpeitia) altzari kooperatiba bateko idazkari-lanetan ari zen ordurako.


Baina bi urtez han bizi ostean, Urola aldeko giroa utzi eta Irunera joan ziren bizitzera, Juleni hango bulego bateko ardura eman zioten-eta aurrezki-kutxan, 1976 urtean. Hori bai, Lekuona-Rekaldetarren seme-alaba Aritz eta Oihana Azpeitian jaio ziren, nahiz eta biak ere oso irundar sentitzen diren orain.



Julen eta Kontxita seme-alabekin, 1999.10.05ean

## Ametsak, ametsak

Ameslaria eta langilea zen Julen, hura ezagutu genuenok ondo asko dakigunez. Eta, bati lagundu eta besteari eragin, lanean saiatu zen beti. Euskal kulturak oro har, eta inguruko gizartearen arazoek biziki larritzen zuten. Eta *Irun Iruten*, *Aia* aldizkarian, Irungo *Elkarri* taldean eta abar buru-belarri sartuta zebilen. Hori bai: atsedendietan, musika klasikoa entzuten jarraitu zuen, edo Jacques Brelen «Dans les ports d'Amsterdam», Benito Lertxundi, Xabier Lete nahiz Mikel Laboa, Negu Gorriak, eta euskal kantariak egindako edozein disko. Aldian behin bere diskoak zaharberritzen ere ahalegintzen zen, eta inoiz ez zuen baztertu nahi izan erruz maite zuen bere kantagintza, eta aldian behingo kantaldi-hitzaldiak ere ez. Edozein lagunarte edo aukera onartzen zuen, bere gitarra galtzarpean hartu eta kantatzeko. Sail horretan sartuko genituzke,



Oiarzungo Pagoarteko kantaldia



Bertso zaharrak diskoa, 1974an

besteak beste, 1998ko apirilaren 30ean, *Badok hamalau* izenarekin Ondarroan eman zuen kantaldi hura; 1999ko uztailaren 24an *Ganbelu zaharra* izenarekin Oiarzungo Pagoarten eman zuena, *Egan sorkuntza-3* aldizkariaren aurkezpena egin ostean; edota, 2002ko urriaren 23an, Donostiako Koldo Mitxelena eman zuen hitzaldi/kantaldia, hain maite izan zuen *Ez dok amairu* taldearen garaia gogoratuz. 2000ko urriaren 15ean Michel Labeguerie omendu zutenean ere hantxe zen Julen, Kanbon, beste kantari ezagurekin batera.

Eguneroko bizimoduak hartaraxe behartuta herriz herri jaialdiak emateari utzi zionean bere abesti-altxorra osabetetzen jarraitu zuen gogotik, erretiro garaia iristen zenean berriro ere batera eta bestera kantari hasteko ametsetan, kutxako zeregin eta presioak alde batera utzita.

## Herio madarikatua

Itxuraz sasoi betean zegoen Julen, eta mila amets ederrez beteta zeukan burua. Bere hirurogeita bosgarren urtebetzea eta lantokiko bere azkenengo lan-eguna biak batean ospatzeko, lantokiko 42 lagunekin bildu zen, uztailaren 18 hartan. Beti bezala, bere egitasmoen berri eman zien lankide ohi eta lagunei, buruan eta bihotzean egosten zituen proiektu handien berri, alegia. Eta berriz ere aldi behin elkar ikusten jarraitzeko hitza emanda agurtu zituen denak.

Hiru aste lehenago Miramongo lantokian bixitan hartu genuen bere alaba Oihanarekin, lehenxeago Donostiako Poliklinikan egindako bixitari erantzun nahi ziola esanez. Ez zuen bazterrik Julenen pozak eta baikortasunak. Eta kontatzekoak kontatu zizkigun: *Irun*

*Iruten* euskara eta euskal kultur elkartean ordu batzuk sartuko zituela ordura arte ez bezalako lasaitasunarekin, *Plazara* aldizkarian gehiagotan idatziko zuela, kanta berriak egin eta han-hemen abestuko zituela, eskatzen zizkioten hitzaldiak emango zituela, emaztearekin lasai-lasai bazterrak bisitatu behar zituela, eta, batez ere, beti gerokotan utzita zeukan disko-grabaketa burutuko zuela hurrengo irailean bertan, CD bikoitz eta atsegin batean bere bizitzako abestirik maiteenak bildu eta bere jarraitzaileei eskaintzeko.

Baina bizitzak ez zion eman nahi izan bere ametsak hezurmamitzeko aukerarik. Eta amets ez eta pozez beteta zeukan bihotz handi hark porrot egin zion, 2003ko uztailaren 19 madarikatu hartan.

### Julen Lekuonari Omenaldia

Alzpurutxon 2003ko abuztuaren 31an.

10:00etan:  
Meza Santua

Ondoren lunch edo hamarretakoa  
EZ DOK HAMAIRU taldeko kideekin

12:30etan:  
Bertsolari eta abeslariekin jaialdia

14:00etan:  
Bazkari Herrikoia  
Izen ematea Alzpurutxoko tabernan 943 853 492 telf.  
Epea: abuztuaren 28rarte.

Egunean zehar eta bazkal ondoan trikitilariak izango dira.



Julen gogoan Alzpurutxoko herriak



Julen Lekuonaren kantaldia



Julen Irungo udaletxean, 1982an



## Hil eta gero

Omenaldiak eta gorazarreak etorri ziren. Batez ere, Aizpurutzokoko bere lagunek ondo gogoan zuten sei urte luzean herriko serbitzari leial izan zen apaiz gazte hura. Eta maitasun horren lekuko izan zen, 2003ko abuztuaren 31n, auzo osoak egin zion omenaldi sentibera hura. Programa bete-betea antolatu zuten hortarako, auzoko zaindari San Agustinen jaia zela bide. Eta egun hartan Julenen kanturik ezagunenak abestu zituen herriak, goizeko hamarretako herri-mezan. Ondoren, hamaiketako herrikoia eta hitz-aspertua, Joxe Lizaso, Agirre eta Lazkanoren bertso-saioa, lagun arteko bazkaria, trikitaliak.

### Kantu eta bideo-irudiekin Julen Lekuona omenduko dute larunbatean Oiartzunen

► Lete, Valverde,  
Jabier Muguruza eta  
omenduaren  
seme-alabak ariko  
dira, besteak beste

F. IBARGUTXI. DV. DONOSTIA

Julen Lekuona zenaren omeneko kontzertua egingo da larunbatean Oiartzungo Elorsoro kiroldegian, arratsaldeko 20etan hasita. Harekin batera aspaldi jardundako Xabier Lete eta Antton Valverde gain, kantari gazteago batzuk ere jardungo dira: Jabier Mugaruza, Mikel Errazkin, Alaitz Telletxea trikitalaria eta omendua- ren seme-alabak: Oihana eta Aritz Lekuona. Bi gazteok lehenengo aldiz izango dute jendaurrean aritzen direna.

«Urduritasun pittin bat badiugu esan zuen atzoko surkepe nean Oihana Lekuonak... Pentatzen dit aita entzuten egon

go dela tokiren baton».

Kantuez gain, bideo-irudiak ere izango dira kiroldegian. Julenen garai ezberdinetako irudiak eskainiko dira.

Oiartzungo Udalak eman zuen kontzertua antolatzeko lehen pausoa, eta atzo Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean egindako aurkezpenean, Martin Beramendi alkateak eta Rafael Bergaretxe zinegotziak animatu egin zituzten oiartzuar ez direnak ere larunbatean kantadira agortzera. «Personer dugarrak» izan zen Julen, Udaleko bi arduradun haien uste-tan.

Lehenengo ekainean aurkeztu zen Julenen omeneko disko hartako materialak izango dira larunbateko kantaldiko ardatza. Kantu ia guztiak omendua- k sortutakoak izango dira, batzuk aspaldikoak, oso ezagunak, hala nola *Ez ez dut nahi* eta *Martin Luther King*, beste batzuk Lekuonak 90eko hamarkadako arken urteetan konposatu- takoak.

"D:ARIE VASCO" 11-11-04

Eta zer esango dugu, 2004ko azaroaren 13an, Oiartzungo Elorsoro kiroldegian bere lagunek eskaini zioten omenaldi-kantaldiaz? Xabier Lete eta Antton Valverde lagun minak, Jabier Muguruzak, Mikel Errazkin eta Alaitz Telletxeak, lau belaunaldi ezberdineko kantariak bat egin zuten han, Julenen gorantz. Hantxe ziren Aritz eta Oihana Lekuona Rekalde ere, lehenengo aldiz jendearen aurrean kantari, aita zenaren gorazarrez. Larunbat arrats huraxe baino bihotz-hunkigarri- rrigorik izan ote liteke?



Julenen omenaldia eta jaialdiko egitaraua

Baina omen eta gorazarre horien gutzien gainetik, Julen Lekuonari egin zaion ohore eta omenaldirik ederrena, *Itsasoan urak handi dire*. Julen Lekuona: omenaldia izenarekin egin-dako CD bikoitza dela esango genuke, seguru-ruenik, izan ere beroietan jasota gelditu bai-tira betiko 1966an eta 1967an Julenek berak kantatu zuen zenbait kanta, eta haren seme-alabek eta lagunek grabatu zuten bilduma bikaina.

Azkenik, Julen hil eta bere lan ezkutuetan agertu zen *Ni hiltzen naizenean*, maite izene-ko poesia esperantza betezko azken mezua dela esan diteke, ezbairik gabe:

Bihotzetik sortzen zait belar guri berdea,  
urte luzetan zehar jantzi dugun bidea,  
elkarren begientzat izan dugun gosea.  
Gurea da bizitza, eta heriotza gurea.

**ILARGIRA NOA**  
Hitzak eta Urtea:  
Agur, agur, agur ilargira noa. (bis)

**ITSASOAN URAK ANDI DIRE**  
Hitzak eta doinua:  
Urtea:  
1. Zazpi laguneko famili batan arotza zen gure aita. Gure erriko alkate ez izan arren, lan egiten zuena.  
2. Mankatzen ez da lan murgildu nai duanentzat. Leengo a ostopo l...

**AMONAREN SUKALDEA**  
Hitzak eta doinua:  
Urtea:  
1. Negua zere luze, negua izoztuzan geldia. Soinoetan beko kantua, goxo loak hartua. Alaiaren arripan sartua andi txakur jurtua. Amonaren jivan bidua sendi zorionista. Ilintaren sai. Ilintaren sai.  
2. Aizku lu ulu kant Laratzen mugit y Talo eg maira y Amora zaitoa Altona

**ILTZAILE BAT BEZALA**  
Hitzak eta doinua: Julen Lekuona 1964  
1. Itzaille bat bezela hemen narriate. Bi esdak loturik munduak apartik. Erririk ez dudala ezakulu nai nuke. Egia nai diontzat emana dit meke.  
2. Egia esan eta zigorez erantzun. Gure bikar moretan ditike irakur. Egia esan eta obe te da mizur, munduak esandako sorzi mila gezur.  
3. Nola nai dela ezr, egirik ez utzi. Nait zigorez laziandu zure gorpuzari. Gure eginkizuna esan munduari, egia giazten dun indar berri hoti.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagaririk, eskerrak eman nahi dizkie:*

- J. Lekuonaren alargun Kontxita Rekalderi eta bere seme-alabei, eta bere arreba Primitivari, bereziki.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2006ko urria

Ale-kopurua: 2.100

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2454-1 (Lan osoarena)  
84-457-2455-X

L.G.: BI - 1850-06

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística